



PRENTSA OHARRA

Errealitate birtuala Santa Maria Katedraletik Gasteizko Harresira zabaltzen da

- Santa Maria Katedrala Fundazioak, bisitariak Gasteizko lehen harresia eraiki zen garaia eta Erdi Aroko hiriaren bilakaerara eramango dituzten 360º-tan murgiltzeko ikus-entzunezko hiru pieza berri aurkeztu ditu gaur.
- Arabako Foru Aldundiaren Enplegu, Merkataritza eta Turismoa Sustatzeko Departamentuak finantzatu ditu bideoak, eta Errealitate Birtualeko Bisita Gidatuen Esperientziaren parte izatera igaroko dira. Esperientzia hori Fundazioak bultzatzen du, bisitariak Katedralaren eta Gasteizko hiriaren jatorrietan murgiltzeko.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko maiatzaren 16an.- Santa Maria Katedrala Fundazioak bisitariei 1100. urtera bidaiatzeko aukera emango dieten errealitate birtualeko hiru ikus-entzunezko berri aurkeztu ditu gaur, lehenengo harresiaren eraikuntza ikusteko, IX. mendean Gasteizko jatorrizko herrixka ezarri zenetik XIII. mendean Erdi Aroko hiria finkatu zen arteko bilakaera-prozesuaren barruan.

Pieza berriak Santa Maria Katedrala Fundazioak teknologia berrien bitartez hiriko ondare historiko eta kulturala gizarte osoari hurbiltzeko bultzatutako ekimenaren parte dira. Izan ere, horrekin dagoeneko 9 bideo sartu dira katedralaren eraikuntzaren eta Gasteizko jatorriaren inguruan 360º-tan murgiltzeko, Errealitate Birtualeko Esperientzien proiektu integralaren barruan. Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismoa Sustatzeko Departamentuak finantzatzen du proiektua.

Horrela, Ramiro González Arabako diputatu nagusiak, Cristina González Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapeneko bigarren diputatu nagusiorde eta foru diputatuak eta Jon Lasa Santa Maria Katedrala Fundazioko gerenteak gaur goizean Gasteizko harresian egindako ekitaldian aurkeztu dituzte ikus-entzunezko murgiltzaile berriak.

Ramiro González diputatu nagusiaren hitzetan, “Santa Maria Katedrala Fundazioa ondarea zabaltzeko egiten ari den lanak nazioartean erreferentziazko posizioan mantentzen gaitu etengabe, teknologia berriek eskaintzen dizkiguten baliabideak modu berritzailean erabiliz.”

Cristina González diputatuak “oso hiri gutxik eskain dezaketen denboran zeharreko bidaian gaur egun Katedraletik harresiraino jauzi egiten duenerrealitate birtualaren potentzial izugarria” azpimarratu du. Ildo beretik, Jon Lasa Santa Maria Katedrala Fundazioko gerenteak, “lan mota horien balio historiko eta dibulgatzailea” nabarmendu du. “Lan horiek, ikerlana publiko guztiei hurbiltzeaz gain, Gasteizko kultura- eta turismo-eskaintzari balio bereizgarria ematen diote.”

Lehen harresia eta Erdi Aroko hiria

Hiru ikus-entzunezkoek hiriaren jatorriaren ikuspegi berria ematen dute. Lehen bideoa IX. mendeko Gasteizko herrixkari buruzkoa da. Bertan, bisitaria muinoaren behealdean jartzen da, biztanleek beren nekazaritzako eremuak zituzten tokian. Ikus-entzunezko piezaren oinarri gisa erabiltzen den ikerlanari esker, garai hartan dagoeneko inguruan zenbait herrixka zeudela pentsa daiteke, Ali eta Abendaño, esaterako.

Bigarren pieza 1100. urtearen inguruan eraikitako lehenengo harresian oinarritzen da. Kokapena aurreko bideoko bera da, muinoaren beheko aldea, harresia eraikitzen hasi zen garaian, hain zuzen ere. Oro har, harresiak perimetro obala zuen, muinoaren goi-lautadari egokitua. 1.000 metroko luzera eta 8 metroko altuera lortu zituen, hogeit hamar ataratu baino gehiagorekin eta sartzeko hiru aterekin.

Azkenik, hirugarren bideoak Behe Erdi Aroko Gasteizera garamatza, XIII. mendera. Bertan, bisitariak Villasusoko harresiko dorreetako batera igoko dira modu birtualean, hiriaren ikuspegi orokorra lortzeko. Hortik uler daiteke Erdi Aroko Gasteizen bilakaera eraikuntzaren ikuspegitik, Gasteiz herrixkan izan zuen jatorritik–Nafarroako Antso VI.ak 1150eko hamarkadan hiribildu izendatu zuen “Victoria” izenarekin– mendebaldeko zabalguneraino–Errementari, Zapatari eta Hedegile kaleak–; azken horrek beste foru bat jaso zuen errege beraren aldetik, eta, “Nova Victoria” izena hartu zuen. Bideo honetan, “Victoria” herrixkaren barruan etorkizuneko Santa Maria Katedralaren lanen jarraipena ikus daiteke.

Errealitate birtualeko bisita gidatuen eskaintzan berehala sartu den esperientzia murgiltzaile berri honek, Katedralaren inguru osoan zehar ia denbora osoko bidaia bat egiteko aukera ematen du. Lehenengo piezek katedralaren kanpoaldetik ematen zuten ikuspegia, ondoren tenpluaren barrualdera pasatzeko. Orain, errealitate birtualak harresira eta Katedraletik metro gutxira dauden aztarnetara egiten du salto.

Bisita mota horretan interesa duten pertsonak katedralaren webgunetik edo 945 255135 telefono-zenbakitik egin beharko dute **“Errealitate Birtuala Esperientzia eta**

Harresia”izenekorako erreserba. Edonola ere, Santa Maria Katedrala Fundazioak 360°ko bideo hauek jende guztiaren eskura jartzen ditu www.catedralvitoria.eus webgunean. Bideoak egiteko Gasteizko Udalaren laguntza izan du, Erdi Aroko azokako jantziak laga baititu.

Lan hau, Santa Maria katedralean eta haren inguruan egindako indusketei buruzko ikerketetan oinarritutako Gasteizko katedralaren, harresiaren eta jatorriaren eredu birtual bat egitean oinarritzen den asmo handiko ikerketa eta hedapen proiektuaren barruan dago. EHUren Ondare Eraikiaren Ikerketa Taldea arduratzen da informazio historiko guztia emateaz, baita Gasteizko muinoko elementu guztien kokapen geometrikoa egiteaz ere. 3d modelatua, azterketa historiko eta arkeologikoei aplikatutako teknologia berrien erabileran aditua den Burgosko Unibertsitateko 3dUBU ikerketa-taldeak egin du.

[Making of-aren bideoa:](#)

Bideoak Fundazioaren [YouTube kanalean](#) ikus daitezke.